

GU ERE ARTISTA

Guztiok daukagu artista bat barruan eta oraingo honetan azaleratu egingo dugu eskulturaren bitartez. Sekuentzia honen azken xedea, talde txikietan elkaturik artelan bat egitea da, horretarako beharrezko diren ezagutzak unitatean zehar jasoko ditugularik. Behin proiektuak gauzaturuta, artelanen erakusketa prestatuko dugu, horretarako ikastetxean edo herrian areto egoki bat bilatuko dugu, gonbidapenak prestatu, kartelak jarri... Ekin lanari, artistak!

<i>Gure herriko eskulturak</i>	2
<i>Artea beti gure artean</i>	3
<i>Mikeldiko Idoloa</i>	5
<i>Margotu zure idoloak</i>	6
<i>Mari eta konpainia</i>	8
<i>Heresiaren mugak</i>	9
<i>Kurutziagako gurutzia</i>	11
<i>Astarloaren monumentu ibiltaria</i>	12
<i>Eskulturaren kokapena</i>	13
<i>Victor Arrizabalaga</i>	14
<i>Azken ekoizpena: egin zure eskultura</i>	15
<i>Kontuan hartzeak</i>	16
<i>Zer ikasi dut</i>	16

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametzta Interaktiboa
 • **Koordinazioa:** Iametzta Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Txelu Angoitia, Unai Iturriaga, Victor Arrizabalaga, Gerediaga Elkartea, Durangoko Arte eta Historia museoa (G.Zorraquin), Garikoitz Estornes Zubizarreta (euskomedia.org) • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutzia ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.








BERRIKETAN

- Sarritan erreparatzen ez badiogu ere, gure eguneroko bizimoduan hainbat artelanekin egiten dugu topo. Artea gure ohiko paisaia sartzen da eta hor dagoela ahaztu ere egiten dugu. Ala ez?
- Beheko argazkietan ageri diren eskultoretako batzuk Durangon ikusiko dituzu eta beste batzuk ez. Gai izango al zinateke zeintzuk diren adierazteko?
- Ezagutzen duzu besterik? Zein? Zer adierazten du? Zein gustatzen zaizue gehien?

GU ERE ARTISTA
IZANGO GARELA ESAN
DIZUET SARRERAN BAINA
ARTISTA ESATERAKOAN
GUZTIOK GAUZA BERA
OTE DAUKAGU
BURUAN? ZER DA
ARTEA
ZUENTZAT?

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Gaiarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue, liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru gure azken ekoizpena egiteko lagungarri izango zaizkigula!






Artea beti gure artean

Gizakia gizaki denetik, beti izan du adierazpide artistikorako joera. Aspaldi handian, duela milaka urte ere, bere aztarnak utzi zituen kobazuloetako hormetan eta horri **labar-arte**a deitzen diogu. Zorionez, Euskal Herrian labar-artearen hainbat adibide ditugu, **Ekain** (Zestoa, Gipuzkoa) eta **Santimamiñeko** (Kortezubi, Bizkaia) leizezuloak ezagunenak artean. Durangaldean bertan ere, Mañariako lurretan dagoen **Askondoko kobazuloan**, 2011. urtean hainbat margo aurkitu zituzten, **Askondoko zaldi gorriak** euren artean.



Santimamiñeko irudiak. Kortezubi (Bizkaia).



'Zaldi gorria', Askondo. Mañaria (Bizkaia).



Munduaren beste muturrean, ozeano barearen erdian dagoen Pazko uhartean, Rapa Nui, ospetsuak egin diren Moai edo giza itxurako eskultura hauek egiten zituzten orain mila urte baino gehiago.

Historian zehar, hainbat artelan, beharbada, euren egileek pentsatu baino ospetsuagoak bihurtu dira eta gaur egun dauden herri eta hiriak bisitatzeko arrazoi nagusienetakoa bihurtu dira. Egia da baita ere, artelan guztiak ez direla ospetsu egiten guztien gustokoak direlako.

BERRIKETAN

- Zuek zer iritzi duzue arteari buruz?
- Artista izan nahi al duzue? Saiatuko gara?



Zein da zaharrena?

Gure herrian dagoen eskulturarik zaharrena zein den jakin behar dugu. Horretarako, pista batzuk emango dizkizuet behealdeko argazkiekin alderatu ditzazuen.

- Ez da pertsona baten omenez egindakoa.
- Elementu borobil bat du bere baitan.
- Harrizkoa da.
- Animalia itxura du.
- Egilea ezezaguna da.



SEGURU
HONEZKERO
BADAKIZUELA
ZEIN DEN!



Mikeldiko Idoloa,
Egile ezezaguna.



'Besarkada',
V. Arrizabalaga



'Umbral',
J. Jauregi.



'Seetor aintzainaren atea',
I. Marrodan.



Elkarrentzat,
M.A. Lertxundi.



Izenburu bakoa,
J.Jauregi.



Hilarria,
N. Basterretxea.



Behia.



Euskal pilotari monumentua,
J.D. Fullaondo.



Fray Juan de Zumarraga.



Ognarud
J.J. Novella.



'Sokamuturra',
P. Haro.


Mikeldiko idoloa

Durangon dagoen eskulturarik zaharrena eta ospetsuenetakoa izango da ezelako zalantzarik barik. **K.a. V. eta I. mendeen artean** datatu izan dute. Bloke bakarrean landutako pieza da, Durango inguruetako hareharrian. Animalia baten forma eskematikoa erakusten du, aketz batena, eta hanken artean eta sabalaren azpian disko bat dauka txertatuta.

Originala **Bilboko Euskal Museoan** dago baina Durangon daukagun erreplika, Ezkurdin hainbat urte egin ostean, aurkitu zuten inguruetan dago gaur egun, Mikeldi kalea eta Francisco Ibarra gurutzatzen diren tokian, hain zuzen ere.



Mikeldiko Idoloa XX. mende hasieran, Mikeldiko San Bizenten. (Argazkia: Garikoitz Estornes Zubizarreta)



Mikeldiko Idoloa gaur egungo kokalekuan.

HISTORIA

Idoloa Mikeldiko San Bizente ermitaren (Iurretako lurrak orduan) kanpoaldean aurkitu zuten 1864an, partzialki lurperatuta. XVII. mendeko testu batean haren aipamenak ageri dira, beraz, badirudi pare bat mende lehenago behintzat agerian zegoela. Bertan egon zen 1920an Euskal Museora eroan zuten arte.

Euskal Herrian ez da aurkitu antzeko eskulturarik, ugariak dira ordea Iberiar Penintsulan Meseta deritzon lurretan, eta horrek eztabaida handiak sortu zituen Mikeldiko Idoloaren jatorriaz.

Bai Mikeldiko Idoloaren zein Mesetako eskultura bitxi horien esanahiari eta funtzioari buruz, hainbat interpretazio egin izan dira antzinatek. Horrela, esan izan da **bideetako mugarriak adierazteko** izan zitezkeela, **abereak zaintzeko funtzio magikoa** zutela edota **hilobi-monumentuak** zirela.

Eztabaidak eztabaida, argi dagoena da Mikeldiko Idoloa Durangoko herriaren sinbolo bat dela gaur egun. Seguruasko, haurrak haren gainean jolastu izanak lagundu egin du hala izan dadin.

Koloretako behiak

Ezagutzen dituzue Tabirako ingurutean dauden koloretako behiok? 2001. urtean Bilbon eginiko *Cow Parade* erakusketatik ekarritakoak dira. Orduko hartan ehundik gora beirazuntzeko behi, beste hainbat artistaren eskuetan utzi zituzten, bakoitzak bere erara margotu zituzan. Saiatu gaitezen geu ere Mikeldiko Idoloarekin gauza bera egiten!



Margotu zure Idoloak

Tabirako behiekin ikusi dugun bezala kolorearen erabilerak ia erabat aldatzen du margotutako elementuaren izaera. Guk dakigula behintzat, Mikeldiko idoloak ez du margotutako gainazalik izan inoiz. Egin ditzagun bada proposamenak gure Mikeldiko Idoloa Parade bat egiteko.

Aldez aurretik ordea, kolorearen gaineko hausnarketatxoa eskatuko dizuegu.

KOLORE HOTZAK ETA BEROAK

Koloreak hainbat taldetan banatu daitezke baina guk kolore hotzak eta beroak bereiztu eta erabiltzea eskatuko dizuegu. Beheko kolore hauek hotzen eta beroen artean sailkatu behar bazenituzkete zelan egingo zenukete?



gorria



morea



horia



urdina




berdea




laranja


KOLORE HOTZAK ETA BEROAK SAILKATU OSTEAN, MIKELDIKO IDOLOAREN BI BERTSIO EGITEKO ESKATUKO DIZUET. LEHENENGOAN KOLORE HOTZAK IZANGO DIRA NAGUSI ETA BIGARRENEAN, OSTERA, BEROAK.

MARRAZKIAK EDO ITXURA ZELEN IRUDIMENAREN ARABERA. EGIN ARTISTAK!






KOLORE HOTZAK NAGUSI



KOLORE BEROAK NAGUSI




BEGIRA, AMHEP,
ATEA ZABALIK DAGO,
SARTUKO GARA?

EZ DAKIT, MARI,
OSO ILUN DAGO...

MA-MARI...
BEARBADA
HOBE GENUKE
IRTETEA...

HARA!
ZER OTE DA HORI?



ZER IRUDI BITXIAK,
EZTA AMHEP?



BITXIAK?!
BELDURGARRI
SAMARRAK
ERE BAL...

BEGIRA BURU-HEZUR
HORRI!




KAIXOI!



ARTELAN BIKAINA
KURUTZIAGAKO GURUTZEA,
ETA BAITA BELDURGARRI
SAMARRA ERE,
ANTZA DENEZ...
KARI KARI

AAAAAAAAAAAAAAAAAAAAA!





BERBETAN

- Amhedek eta Marik ez zuten Kurutziagako gurutzea ezagutzen. Zuek bai? Ba al dakizue non dagoen? Non zegoen lehenago? Eta ba al daki inork noiz eta zergatik egin zuten?



Zer dakit?

Heresiaren mugak

“Entzuidazu ume”, esan dit osaba Bitorrek. “Eta ez esan “ume” ez deitzeko, ze, Kurutziagako gurutzeari buruz berba egin behar badugu neu ume nintzen garaia baino atzerago jo behar dugu-eta!”. Osaba Bittor serio jartzen denean hobe ahoa itxi eta begi-belarriei zabalik eutsi.

XVI. mendean **frai Alfonso Mella** izeneko frantziskotar batek erilijio kristauaren gaineko ohiz kanpoko predikuak zabaldu zituen Durangaldean. Predikuok ez ziren ez **elizako agintari gorenen ezta hiribilduko agintarien gustukoak izan**, batzuen zein besteen aginte modua salatzen baitzuten.

Agintariak ez baina Durangoko eta inguruetakoa hainbat lagun batu ei zitzaizkion Alfonso Mellari bidean, **herritar xeheak** gehienbat. Eleizak eta Gaztelako koroak errotik moztu gura izan zuten ustezko zalaparta hura eta **1441.ean eta 1444.ean** izandako bi epaiketaren ondorioz hainbat lagun atxilotu zituzten. Danetariko zigorrak ezarri zizkieten eta horietako ehun inguru erre-ta hiltzera kondenatu zituzten heresia egotzita. **Kondenatuetako hamahiru Kurutziagako errebalearre ei zituzten**. Hortik dator Kurutziagako gurutzearen jatorriaren gaineko usterik hedatuena: **heresia horren ondorioz, pekamenezko monumentu gisa** eraiki zutela.

Beste batzuk diote gurutzea ez dela **hiribilduaren mugak argi adierazteko** mugarri landu eta dotore bat baino.

Nik neuk, irudipena dut batean zein bestean, funtzioa berbera dela: **mugak ezartzea**. Heresiaren kasuan agintariek euren ez den iritziari mugak jarri. Mugarriarenean bisitariak ulertu zezan hiribilduko muga zeharkatzean txanponak prest izan behar zituela.

“Txanponak zertarako, Osaba?” galdetu orduko betaurrekoak kendu eta jertsearen muturrarekin garbitzen hasi da. Amua irentsi dudana seinale. “Hara, ume. Batetik garai batean Durangon salgaiekin sartu gura zuenak ordaindu egin behar izaten zuelako. Eta, bestetik, lehen zein orain, gura beste txanpon izanez gero beti delako errazagoa surtatik libratzea”.



BERRIKETAN

- Osaba Bittorrek azaldu digu zein funtzio bete zitzakeen Kurutziagako gurutzeak. Mikeldiko Idoloari buruzko atalean ere ikasi dugu hainbat funtzio ezberdin bete zitzakeela piezak. Zein funtzio nahi dugu bete dezan gure artelanak? Funtzio konkreturen bat izan behar al du? Ez al da nahikoa ederra izatea bera? Sortzeko bidea bera ez al da nahikoa funtzio?

Zertarako egingo dugu artelana:



EZAGUTZEN AL DUZU DURANGON ANIMALIA ITXURA DUEN BESTE ESKULTURARIK? ESANGO ZENIDAKE NON DAGOEN EDO DAUDEN? A! BIDE BATEZ GALDETU ETXEAN EA NOLA DEITZEN DIOTEN BERAIEK MIKELDIKO IDOLOARI, ADOS?

Kurutziagako gurutzea

Zehazki noiz eraikitakoa den jakiterik ez badago ere, **XV. mendearen erdi aldera** (1457an hain zuzen ere) Kurutziagako errebalean zegoela ageri da testu batean.

Gurutzea zizelkatu zuen egilea nor izan zen ez dago argi esaterik. Garai haietako lan askorekin gertatu ohi den legez, **eraikitzeko arrazoia eta funtzioa bera eztabaidagai** dira oraindik.

Teoria hedatuenak dio XV. mendean inguruetan izandako **heresia mugimendu** baten pekamenek eginiko eskultura dela. Beste batek, egun dagoen **Vera Cruz ermitako ermandadearekin** lotzen du. Azkenik, badira hiribildua zedarritzeko **mugarri** legez kontsideratzen dutenak ere.

Jakin badakiguna da Kurutziagako gurutzea historian hainbat aldiz lekuz aldatu arren, beti **Kurutziagako errebalean** egon izan dela, metro batzuk gorago edo beherago, baina beti bertan.

Pentsatzekoa denez, bost mendez, gertakari askoren lekuko izan da gurutzea. Tartean berari pairatzea egokitu zaizkion bi momentu latz: **1937ko martxoaren 31ko bonbardaketan** kalte larriak jasan zituen eta ez zen 1940a arte bere lekuan berriz ipini. **1980an leherkariz eginiko atentatuak** hainbat haustura eragin zizkion.

Mendeotan gau eta egun durangarren eta bisitarien begietara egon ostean, gaur egun Vera Cruz ermita zenean, gurutzea aterpetzeko eraikitako **Kurutzesantu museoan dago**. Bisita gomendagarria inondik ere.



Kurutziagako gurutzearen bi aldeak.
Argazkia: Txelu Angoitia.



Kurutziagako gurutzea 60ko hamarkadan.



Astarloaren monumentu ibiltaria

Pablo Pedro Astarloa Agirre (Durango, 1752ko ekainaren 29a - Madril, 1806ko ekainaren 2a) hizkuntzalari garrantzitsua izan zen. Euskararen defendatzaile sutsua izanik, 1886. urtean Durangon ospatu ziren **Euskal Jaietan** Bernabe Garamendi eta Serafin Basterra artistek bere omenez egindako estatua inauguratu zuten. Baina...

Lehenago aipatu baitugu kokapena oso garrantzitsua dela, egia da zenbait eskulturak ez dutela kokapen bat eta bakarra izan. Pedro Pablo Astarloaren omenezkoa **Ezkurdin** jarri zuten lehenengo aldiz, arestian aipatutako 1886. urtean. **1949. urtean Frai Juan Zumarragaren** omenezko eskultura ekarri zuten Mexikotik (hango lehenengo apezpikua izan zen) eta Ezkurdin kokatzea erabaki. Horrek **Pedro Pablo Astarloaren lekuz aldatzea** eragin zuen.

Tarte batez Montevideo kalean jarri zuten, baina berandu barik gaur egun ezagutzen dugun kokapenean, Pinondon hain zuzen ere, bukatu zen Pedro Pablo Astarloaren monumentuaren ibilbidea. Momentuz...



Astarloaren monumentua Ezkurdin.



Frai Juan Zumarragaren monumentua Ezkurdin.

Astarloaren monumentua Pinondon gaur egun.



Eskultura non jarri

Eskultura bat sor-
tzerako orduan badira
kontuan hartu beharreko
hainbat alderdi: aztertu ditu-
gun **funtzioa eta kolorea** dira
horietako batzuk. Ahaztu ezin den beste
alderdi bat da eskultura hori **non kokatuko
den** behin bukatuta dagoenean.

Mikeldiko Idoloaren eta Kurutzia gako gurutzearen kasuan ere ikasi dugu behin baino gehiagotan aldatu dituztela lekuz. Mikeldiko idoloa Ezkurdin zegoenean umeen jolaserako elementua ere bazen. Artelan batek bete behar al du funtzio hori? Kurutzia gako gurutzea, berriz, kalean egotetik museo batera sartu dute, oinezkoaren begien bistatik kenduz. Zergatik egin ote dute?

Ondo iruditzen zaizue?

IKASITAKOAK
IKASITA,
BURURATZEN AL
ZAIZU ZURE
ARTELANA KOKATU
NAHIKO ZENUKEEN
LEKU EGOKIREN
BAT?



Non dago 'Besarkada'?

Ba al dakizue eskultura hau non dagoen kokatuta?



Besarkada. V. Arrizabalaga


Nork? Noiz? Zer?

Victor Arrizabalaga

1957, Mañaria. Durangon bizi da.

Eskultorea eta irakaslea.

Victor Arrizabalaga Mañarian jaio eta Durangon bizi den eskultorea da. Ikasketaz, Ekonomia eta Enpresa zientzietan lizentziatua eta Arte Historian doktoratua da. Ogibidez, berriz, irakaslea lurretako institutuan. Hala ere, hiru hamarkadatik gora daramatza bere bokazio artistikoari bide ematen, eskulturaren alorrean batik bat. Landako Etorbidean aurkituko dugu *Besarkada* izeneko pieza [2006an inauguratu zen].



Besarkada eskulturan Victor Arrizabalagak **guztionez ezaguna den elementu batekin** jolas egiten du. Nork ez ditu noizbait puzzle pieza batzuk esku artean eduki? Nor ez da saiatu puzzle bat egiten?

Zer gertatzen da ordea, guztiontzako eza-
guna den pieza bati, **neurria (eskala) kolorea, eta kokapena** aldatzen zaizkionean?

Hori da Arrizabalagak eskultura honetan egin duen ariketa: piezei neurria aldatu eta elkarren artean ez-ohiko modu batean harremanean jarrita, pieza berri bat sortzen du, lehen kolpean harridura eta irribarrea sortzen dituena. Bigarren begirada batean, pieza horietan elkar besarkatzen duten giza formak ikustera iritsi gaitzke? Beharbada bai. Ala ez? Zer deritzozue?



Materiala

Zerezkoak dira eskulturak?

Funtzioaz, koloreaz eta kokapenez berba egin dugu honetako baina, materiala funtsezko elementua da eskulturan. Zer materialetakoak dira ezagutzen dituzuen eskultura gehienak? Zer materialekin dago egina, zuen ustez, Victor Arrizabalagaren “Besarkada”? Zein izango da zuen eskultura egiteko material egokia?

Kontuan hartu erraz maneiatzeko moduko materiala beharko duzuela, eskolan daukazuen baliabideekin, moztu, itsatsi, margotu... daitekeena. **Papera, kartoia, plastikoa, etxean birziklatutako materialak...** esku-
eskura daukazuen materialetan pentsatu!

Ekin lanari!

Lagunok, ikusi eta ikasi ditugu Durangoko eskultura zahar eta berriagoen zenbait kontu. Espero dut interesgarriak eta baliagarriak suertatuko zitzaizkizuela. **Orain lanean hasteko ordua da!** Ez baitugu ahaztu behar gure azken ekoizpena gure eskola edo herria dotoreagoa, atseginagoa bihurtuko duen eskultura bat egitea dela. **Izan gaitezen artista!**

PROPOSAMENA

Victor Arrizabalagak puzzlearekin egin legez, zuek ere gure inguruan ohikoa den elementu bat hartu eta harekin jolas egitea da proposamena. Badakizue, **aukeratu objektu bat, neurria aldatu (handituz edo txikituz, objektuaren arabera), eman bestelako kolore bat eta pentsatu ondo non kokatu.**

Inspiraziorako lagungarri bazaizkizue, hona hemen Claes Oldenburg artistaren zenbait lanen argazkiak.



GOGORATU!!!!

Eskulturak hiru dimentsioko lanak dira eta (gehienetan) inguratu eta alde guztietatik ikusi ditzakegu. Horregatik pentsatu non jarri eta zein izango den gehien ikusiko den aldea edo aldeak.



Hainbat aholku

- 1 Durangon badaude beste eskultura batzuk. Aztertu eta gustatzen zaizuen elementurik badu, erabili. Interpretatzea ez da kopiazea!
- 2 Eskulturarekin zer sortu, eragin gura duzun pentsatu.
- 3 Emango diozun kolorea, forma, kokapena aldeztatik pentsatu.
- 4 Erraz maneiatu eta lortuko duzun materialea aukeratu.
- 5 Eskulturak eginda daudenean eskolan iragartzeko kartelak edo gonbidapenak.
- 6 Gozatu! Gauzak plazerez egiten direnean askoz hobeto ateratzen dira!
- 7 Ez ahaztu egindako artelanei argazkiak ateratzea!

Zer ikasi dut?

1. Zer ikasi dut?

.....

.....

2. Zelan ikasi dut?

.....

.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?

.....

.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?

.....

.....

5. Gehien gustatu zaidana

.....

.....